

## KULTURSISTEMA

Kultura eta sormen ekosistemak  
interpretatu eta mapatzeko matrizea

*Ricardo Antón Troyas eta Roberto Gómez de la Iglesia*

## ZER DA KULTURSYSTEMA?

KULTURSYSTEMAK kultura eta sormen ekosistemak interpretatu eta mapatzeko kategorizazio matrize bat (edo matrize multzo bat) proposatzen du. Bere aniztasuna islatu nahi du sektore eta azpisektoreekiko, balio katearen katebegiekiko, esparru horretan esku hartzen dute eragileen tipologiarekiko, bai eta funtsezko eraginen eta itzuleren ezaugarriekiko ere.

KULTURSYSTEMAren helburua da ahalik eta erarik aberats eta eguneratuenean laguntza ematea kultura eta sormen ekosistemetara hurbiltzeko; horien baitan daude eragile eta praktika berriak, edo, lehenagotik dauden tipologiak gurutzatuzetik sortuta, ohiko analisi esparruetan nekez egokitzen direnak. Gainera, kultura eta sormen sektoreen izaera dinamikoa eta aldakorra adierazten duen hurbilketa da, nola berez, hala beste diziplina nahiz jarduera esparru batzuekin dituen harremanen ugariasunaren ondorioz; bai eta aldakuntza teknologikoen, erreferentziazko esparru instituzionalen edo balio sozialen eragina ere.

KULTURSYSTEMAren berezko joera da politika kulturalak edota lurralde jakin batean sormena garatzeari lotutako politikak bideratzen laguntzeko tresna izatea; jarduera ingurunea hobeto ezagutu ahal du, eta ekintza publikoaren ikuspuntua erabaki. Sektoreko antolakuntzek eta profesionalen euren buruaren diagnostikoa egiteko ere eraginkorra izaten da, lagundu egiten dielako haien lehentasunezko jarduera eremuak zein diren zehazten eta lortu nahi dutena errealitatearekin kontrastatzen.

Azken batean, KULTURSYSTEMA lanabes erabilgarria da erreferentziako elementu bezala hainbat lanetan: arduradun politikoak, antolakuntza kulturaletako taldeak, sektorean espezializatutako aholkulariak eta *policy makerrak*. KULTURSYSTEMAK lagundu egiten du eragile guztien jarduera esparrua zehazten eta, horiek osatzen duten ekosistemaren baitan, zer eginkizun izan nahi duten ikusten.

KULTURSYSTEMAK eskaintzen dituen interpretazio tresnek bat egiten dute alderdi askotan kultura arloan ohikoak diren kategorizazioekin; esate baterako, bat egiten dute David Throsbyk proposatutako zirkulu zentrokideekin edo UNCTADen sailkapenarekin, txostena idazteko taldeak zabaldua eta, era berean, beste kategorizazio batzuekin kontrastatuta (Kulturako Agenda21, CNAE, Erresuma Batuko DCMS, Txileko Kulturaren Kontseilua, eta abar), bai eta Eusko Jaurlaritzak berak, “Kultura, sormena eta sormen aplikatua Euskadi RIS3 Espezializazio Adimenduneko Estrategiaren aukerako lurralde bezala” esparruan, alde aurretik egindako kategorizazioa ere.

Nahiz eta KULTURSYSTEMA Euskadiko lurralde esparruan agertu den, bertako aukera eta bereizgarrietako batzuei erantzunez, ahalegina egin da neurri handi batean beste leku batzuetara zabaltzeko moduko tresna izan dadin, betiere egokitzeko eta testuinguruan kokatzeko beharrezko lana eginda.

**ERABILGARRI IZANGO DELA  
ESPERO DUGU!**

# KULTURSYSTEMAREN KONPOSAKETA

**1**

**KULTURA ETA SORMEN ARLOKO  
SEKTOREAK ETA AZPISEKTOREAK**  
05-13

**2**

**BALIO KATEAREN  
FASEAK**  
14-17

**3**

**ERAGILEEN TIPOLOGIA**  
18-21

**4**

**ERAGINAK ETA ITZULERAK**  
22-25

**5**

**GURUTZAKETAK ETA  
KONBINAZIOAK**  
26-33

**6**

**ERREFERENTZIAZKO  
BIBLIOGRAFIA**  
34-37

# 1

## KULTURA ETA SORMEN ARLOKO SEKTOREAK ETA AZPISEKTOREAK



Kultura eta sormen bezala hartzen da hemen kultura arloa osatzen duten eta hari era zabalean eragiten dioten jarduera esparruen multzoa. Errealitate konplexua da, ekonomia eta ekoizpen sektore gisako irakurketa hutsetik harago, alderdi antropologikoak, soziologikoak, politikoak, zuzenbide-administraziokoak eta abar txertatzen dituena.

Bereizitako bost sektore edo mailaren inguruan antolatutako sailkapen bat proposatu dugu:

1. Kultura ondarea.
2. Artea.
3. Arte aplikatuak eta lanbide artistikoak.
4. Kultura eta sormen industriak.
5. Bitartekaritzako eta laguntza-industrietako zerbitzuak.

Era berean, sektore horiek diziplinen araberako hainbat azpisektoretan zatituta daude. Horiek, aldi berean, era askotako jarduera bereiziz osatuta daude; jarduera horiek, gero, zorrotasun izaerarik gabe zerrendetan ageri dira.

Gainera, funtsean edukietan oinarritutako bost sektore horiek elkarren osagarri diren bi ardatzek gurutzatzen dituzte alderik alde, zeharkako eran. Ardatz horiek honako hauekin lotuta daude:

- Ekoizpen, erakusketa, banaketa, kontserbazio eta merkaturatzeko espazio eta plataformak, fisikoak eta birtualak (X ardatza).
- Kultura eta sormen sektoreak arautu, sustatu eta bultzatzeko eragileak (Y ardatza).


Sektorearen berezitasunak aintzat hartuta, garrantzitsua da ondorengo hauek adieraztea: proposatutako kategoriak ez dira ez nahasgabeak eta ez itxiak; badaude era zeharkakoan sektore bat edo gehiagoren artean kokatzen diren jarduerak. Azken horiek direla eta, hainbatetan bata bestearen gainean kokatzen dira nabarmen; batzuetan, areago, kultura edota sormen balioko katearen begiekin ere gertatzen da. Gainera, erabaki da ez aintzat hartzea hurbileko sektoreak edo lotura estuak dituztenak, hala nola, ondare naturala, kirola edo turismoa (zehazki kulturala dena izan ezik).



**X ardatza**  
**ESPAZIO ETA**  
**PLATAFORMAK**  
 (fisikoak eta birtualak)



**Y ardatza**  
**ARATU, SUSTATU**  
**ETA BULTZATZEKO**  
**ERAGILEAK**



## 1. KULTURA ONDAREA

Ondasun kultural material eta immaterialen multzo zabala, herri baten identitate dinamikoa osatzen duena, etorkizuna sortzeko oinarri kultural gisa eratuta, zaindu, iraunarazi eta areagotzeko asmoarekin belaunaldi batek jaso eta hurrengoari transmititzen dion oinordetza.



### Ondare Kultural Materiala

Higigarria (artistikoa, ekipamendua, altzariak...) eta higiezina (monumentuak eta lekuak).



### Ondare Kultural Immateriala

Jakintza, hizkuntza, ospakizun, adierazpide, memoria kultural, kultura tradizional eta abarrek osatutakoa.



### Ondare Kultural-Naturala

Aztarna arkeologikoak, fosilak, lurrekoak eta ur azpikoak, iritzi zientifikoko beste material batzuk; horrez gain, denbora eta espazio jakin batean sortutako paisaia kulturala ere bai.



### Ondareari aplikatutako jarduera esparruak

Paleontologia / Historiografia / Arkeologia / Museografia / Zaharberritzea / Artxibozaintza eta Bibliotekonomia / ...

## 2. ARTEAK

Sortu, konposatu eta proposatzeko esparrua, lan eginez askotariko forma, material, hizkuntza, adierazpide eta harremanen bitartez, eta sortuz esanahi berriak, kontakizunak, emankizunak, antolamenduak, espazio sinbolikoak eta subjektibotasunak.



### Plastikoak

Marrazketa / Pintura / Eskultura / Grabatua / ...



### Irudienak

Argazkigintza / Ikus-entzunezko sormena / ...



### Eszenikoak eta zuzenekoak

Antzerkia / Dantza / Performancea / Zirkoa / Bertsolaritza eta inprobisazioa / Magia / ...



### Literatura

Eleberria / Saiakera / Gidoigintza / Poesia / Itzulpen literarioa / ...



### Musika

Klasikoa / Herrikoia / Garaikidea / ...



### New Media Art

Arte multimedia eta elkarreragilea / Arte elektronikoa / Artea eta zientzia / Esperimentazio artistikoko *hardwarea* eta *softwarea* / Datuen kultura / ...



### Harremanetakoa

Testuinguru praktika / Portaera artea / Komunitate artea / Artibismoa / ...

## 3. ARTE APLIKATUAK ETA LANBIDE ARTISTIKOAK

Izaera estetiko bat erantsiz, elementu funtzionalak, erabilgarriak, apaingarriak edo etxeak ekoizteko helburuarekin arteetako, sormeneko eta beste diziplina batzuetako ezagutzak eta teknikak erabiltzen dituzten jardueren multzoa.



### Eskulangintza

Zeramika / Zura / Larrukigintza / Beira / Musika instrumentuak / Ehungintza / Bitxigintza / ...



### Diseinua

Grafikoa-Argitalpena-Ilustrazioa / Industriala / Altzariak / Moda / Prozesuak / Produktua / Zerbitzuak / Esperientziak / Multimedia / Jolasak eta jostailuak / ...



### Arkitektura

Paisajismoa / Hirigintza / Eraikuntza / Barne-diseinua / Eszenografia / ...



### Gastronomia

Elikadura kulturala / Sukaldaritzako I+G / Esperientzia gastronomikoak / ...



### Kultura *makerra*

*DIY-DIWO-DIT* / Fabrikazio digitala / Programazio irekia / Eskulangintza digitala / ...

## 4. KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIARI

Kultura eta sormen eduki nahiz produktuei euskarri material edo immateriala eskaintzen dieten jarduera multzoa da, ekoizpen sistematizatua, seriatua eta haren banaketa masiboa ahalbidetzen duena (ekoizpen estandar horri estu lotutako zerbitzuak barne).



### Argitalpenak

Liburuak / Prentsa eta aldizkako argitalpenak / Katalogoak / Erreproduktzio artistikoa / Edizio mugatuak / ...



### Ikus-entzunezkoak

Zinema / Telebista / Bideoa / Irratia / Bikoizketa / ...



### Musikala

Musika ekoizpena / diskoetxeak / musika sustapena eta banaketa / ...



### Baliabide berriak

Transmedia / Bideo-jokoak / Bitarteko digitalak / Eduki digitalak / Entreenimenduko *softwarea* / Hezkuntzako *softwarea* / ...



### Hizkuntzako industriak eta zerbitzuak

Itzulpenak / Hizkuntzak irakastea / Terminologia-Lexikografia / Hizkuntzaren teknologiak / ...

## 5. BITARTEKARITZAKO ETA LAGUNTZA-INDUSTRIETAKO ZERBITZUAK

Euskarri teknikoak, laguntzeko zerbitzuak, ekoizteko eta erreproduzitzeko bitartekoak edo espezializatutako balio erantsia gehitzeko beste forma batzuk eskaintzen dituzten askotariko jarduera multzoa da. Balio kateko begi batean edo batzuetan nola kultura edo sormen sektoreei zuzendutako jarduerak, hala kultura arlotik beste esparru batzuetara aplikatutakoak dira.



### **Kultura hezkuntza**

Formala (hezkuntza sistema arautua) / Ez formala



### **Kultura aholkularitza**

Analisia-lkerketa / Aholkularitza eta laguntza / Sormena eta berrikuntza / ...



### **Kultura kudeaketa**

Kultura proiektu eta antolakuntzak diseinatu nahiz kudeatzea / Idazkaritza teknikoak / Kultura administrazioa / Espezializatutako zuzenbide zerbitzuak / ...



### **Bitartekaritza artistikoa**

Programazioa eta zaintzailletza / Kudeaketa eta ordezkariak / ...



### **Ekitaldiak antolatu eta ekoiztea**

Jaialdiak / Azokak / Batzarrek / Desfileak / ...



### **Aisialdia eta jolasa**

Denbora libreko jarduerak / Turismo kulturala / ...



### **Bitartekaritza kulturala**

Zerbitzu pedagogikoak / Gida kulturala / Aretoko laguntza / Bitartekaritza kulturarenitza / Bideratzea, dinamizatzea eta animatzea / ...



### **Komunikazioa**

Publizitatea / Harreman publikoak eta hedabideekikoak / *Social media* / Ikusleak eta entzuleak kudeatzea / *Ticketing* / ...



### **Finantzazioa**


Babesa eta mezenasgoa / Sektorerako berariazko finantza produktuak dituzten erakundeak / Mikrofinantzazio eta inbertsio kolektiboko plataformak / ...



### **Produktzio eta erreproduktzio zerbitzuak eta ballabideak**

Produktzio museografikoa / Zerbitzu eta talde teknikoak / Arte grafikoak / Mekanizazio eta produktzio industriala / *Hardwarea, softwarea* eta telekomunikazioak / ...


## ARDATZ OSAGARRIAK



### X ardatza

Ekoizpen, erakusketa, banaketa, kontserbazio eta merkaturatzeko espazio eta plataformak (fisikoak eta birtualak).

- Antzokiak
- Arte galeriak
- Artxibategiak
- *Coworking*ak
- Eduki digitalen biltegiak eta kanalak
- Ekoizpen zentroak
- Enkanteetarako aretoak
- Espezializatutako prestakuntza zentroak
- Espezializatutako beste salerosketa batzuk
- Gaikako eta aisialdiko parkeak
- Gune balioanitzak
- Ikasgelak eta tailerrak
- Kontzertu aretoak
- Kultura zentroak
- Liburu-dendak
- Liburutegiak
- *Maker space*ak
- Museok
- *Showrooms*
- Zinema aretoak
- ...




### Y ardatza

Kultura eta sormen sektoreak arautu, sustatu eta bultzatzeko eragileak.

- Administrazio publikoa (sailak, erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak) eta erakunde pribatuak, kultura, sorkuntza eta sormena arautzeko, sustatzeko edota bultzatzeko eskumen eta interes zuzen eta ez zuzenekin, hainbat esparru eta mailatan.
- Ordezkaritza kolektiboko erakundeak: Enpresa elkarteak / Asoziazio federazioak / Sektorekako *klusterrak* / Jabego intelektual eta industrialeko eskubideak kudeatzeko elkarteak / Erakunde sindikalak / ...

X ardatza  
ESPAZIO ETA  
PLATAFORMAK  
(fisikoak eta birtualak)




Y ardatza  
ARAUTU, SUSTATU  
ETA BULTZATZEKO  
ERAGILEAK



## 2

### BALIO KATEAREN FASEAK




Balio katetzat jotzen da balioa eransteko bereizitako etapen multzoa: era kateatuan -nahitaez hurrenez-hurrenekoa izan beharrik gabe -, era guztietako prozesuak garatzeko beharrezkoak diren jarduerak sistematikoki irudikatzea ahalbidetzen dute.

Kultura eta sormeneko sektore eta azpisektore guztien balio katea analizatzea eta haren baitan banan-bana eragileek duten kokapena ezagutzea oso erabilgarria da gapak ezagutzeko; eraginkortasun gabeziak, gehiegizko agerpenak eta ingurune batek eskaintzen dituen aukerak, sarritan ekimenak bideragarri izan daitezen eta ekosistema osoa gara dadin erabakigarriak direnak. Informazio hori funtsezkoa da erakunde profesionalek eta kultura politiketako edo sormena sustatzeko arduradunek testuinguruan egoki kokatutako planak eta estrategiak zehaztu ditzaten.

Nahiz eta barne mailan eragile bakoitzak dituen helburuak betetzeko nork bere balio katea zabaldu (produktuak, proiektuak, zerbitzuak, esperientziak, eta abar eskaini eta garatu),

KULTURASISTEMAn eragile bakoitzak kanpoko balio katean betetzen duen kokalekuari edo kokalekuei begiraten diegu arretaz. Hau da, sektoreko merkatu berariazkoaren barruan eragile bakoitzak bere jarduera fokua identifika dezan nahi dugu, bere ekarpen eta zentzu nagusia, hain zuzen. Esate baterako, eragile guztiek finantzazioa behar duten arren, haien lanbidea ez da halabeharrez kultura proiektuak edo erakundeak finantzatzea. Horrenbestez, kate-begi horretan kultura finantzatzen duten eragileak edo hirugarren jendea finantzazioa eskuratzera bideratzen duten eragileak bakarrik aurkitu beharko genituzke.

KULTURASISTEMAn gure helburua izan da, grafiko bakarrean, sektore eta azpisektore guztietako balio kate denek osatzen dituzten kate-begi guztiak biltzea. Gainera, erabilgarriak izan daitezen, kate-begi bakoitzean hainbat azpifase edo eginkizun bildu ditugu.



# 3

## ERAGILEEN TIPOLOGIA




Kultura edo sormen sektore edo azpisektoreetako baten edo batzuen inguruan euren jarduera ardatzen duten izaera juridiko, antolatzeko eredu edo dimentsio desberdineko pertsona edo taldeen sailkapena. Izan daitezke sektore publikokoak, sektore pribatu-komertzialekoak, gizarte sektorekoak edo ohiko sektoreak gurutzatzen diren puntuan eta gunean sortutako bitarteko antolamendu hibridoekin osatutako gorantz datorren laugarren sektore batekoak.

KULTURASISTEMAn sailkapen hau proposatzen dugu, dogmarik finkatu gabe, ulertuz gaur egungo kultura eta sormen ekosistemen baitan tipologiak korporatibismo klasikotik edo publiko-pribatu ala komertzial-sozial dikotomia ohikoetatik harago doazela. Eragileen gero eta dibertsitate handiago dago, asmoei, antolakuntza ereduiei edo finantzazio sistemei dagokienez. Sarritan, tipologia desberdinetatik abiatuta, helburuak, estrategiak eta proiektuak partekatzen dira.

Sektore pribatu-komertziala

Sektore publikoa



Profesional autonomoak eta mikroenpresak	ETEak	Enpresa handiak eta korporazioak	Administrazio publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak
Hiritar aktiboak banaka	Erakunde informalak	Elkarteak	Fundazioak
Ekonomia sozialeko enpresak	Elkarte profesionalak	Klusterrak	Sareak

# 4

## ERAGINAK ETA ITZULERAK



Eragintzat jotzen ditugu plan, programa, proiektu, zerbitzu edo ekintza jakin bat gizarte talde batean, esparru zehatz batean edo prozesuan bertan, antolakuntzan edota esku hartzen duten eragileengan inplementatzearekin lotutako ondorio, aldaketa edo emaitzak.

Itzulerak, berriz, epe labur, ertain edo luzeko kausa-ondorio ondorenak eta harremanak dira; tipologia anitzekoak izan daitezke, hala nola, barne edo kanpo itzulerak, zuzenak edo zeharkakoak, berariazkoak edo orokorrak, planeatuak edo aurreikusi gabeak, positiboak, negatiboak edo neutroak.

Tipologiaz gain, aintzat hartu behar da euren kopurua, kalitatea eta hedadura.

Jakinik badirela, besteak beste, politikak ebaluatzeako adierazleak, sormena eta lurraldearen garapenerako sektorearen potentzialtasuna neurtzen duten adierazleak edo kultura ekintza batek tokiko ekonomian duen eragina kuantifikatzeko sistemak, KULTURSYSTEMAn, modu osagarrian, erreferentziako hamabi item dituen sorta bat garatu dugu autodiagnostikorako, zenbatzeko analisisa baino gehiago gogoetako izaera goragoko bat duena.

\_\_\_\_\_ (analizatu beharreko eragilearen edo proiektuaren izaeraren arabera, aske izendatzeko adierazle aldagarria)

### Sektorean bultzatzeko berariazko gaitasuna

Dimentsioagatik, sareagatik, espezializazioa edo dibertsifikazioagatik, merkatuengatik, agerpen geografikoagatik, berrikuntza gaitasunagatik, industrializatzeko ahalmenagatik...

### Nazioartekotze maila

Sareetan, proiektuetan, merkatuetan edo kanpoko merkataritzan agertzea.

### Beste jarduera esparru batzuetan duen eragina

- Transferentzia
- Diziplina askotan, diziplinen artean edo diziplinetan zehar
- Sektore arteko lankidetzak
- Elkarrizketa eta hibridazio prozesuak

### Enpleguaren bultzada

- Sorkuntza edo mantentze zuzeneko edo zeharkakoa
- Enpleguaren kalitatea eta prestakuntza

### Ekarpen ekonomiko-kuantitatiboa

- BPGa sortzea
- Zerga itzulerak
- Kapitalen banaketa edo zentralizazio maila
- Kanpo-eragin positiboak edo negatiboak

### Kultur garapenerako ekarpena

- Kultura demokratizazioa
- Banakako sormena eta sormen soziala
- Balioak, subjektibotasuna eta iruditeria soziala
- Kulturako laguntza-erabilera-kontsumoa-bizipena-adopzioa

### Tokiko garapenarentzako ekarpena eta berrikuntza soziala

Era holistikoan ulertuta, kultura kohesioa, gizarteratzea, hezkuntza, osasuna, ingurumena, ekonomia, turismoa eta abarren bideratzaile.

### Zer galderari erantzuteko berrikuntzen maila

- Ideiak eta edukiak
- Jarduerak
- Produktuak
- Zerbitzuak
- Kultura esperientziak

### Nola galderari erantzuteko berrikuntzen maila


Harreman, gobernantza, ekoizpen, banaketa eta jabego metodologia eta ereduak.

### Berrikuntza publikorako ekarpena

- Politika publikoak
- Plan berriak eta neurriak
- Parte hartzea eta ahalduak

### Lankidetzak maila

- Sareak sortzea
- Elkarlanerako guneak eta praktikak



# 5

## GURUTZAKETAK ETA KONBINAZIOAK



Kultura eta sormen ekosistemako ahalmenaren eta balioaren gero eta zati handiagoa lehendik dauden eragileak berriz definitu eta kokatzearen baitan dago. Eragile berriak agertzearen baitan, hain zuzen. Haien aniztasuna ohiko konbentzioak baino harago doa, tipologiari, jarduera esparruei edo ezagutza gizarteratzeko formei dagokienez; bai eta sortzen ari diren fenomenoak agertzeko aukerak konbinatzeko gaitasunarekin ere.

Horregatik, KULTURASISTEMAK proposatu ditu, alderdi garrantzitsu bakoitza era berezian analizatzeko balio duten matrizeez gain, hiru matrize osagarri


(datuak gurutzatzen dituztenak), lagunduz interpretazio doiagoa egiten eta berezitasunetan, potentzialitateetan eta aukeretan aurkitzen nahiz arreta jartzen:

- Sektoreak eta azpisektoreak balio katearekin gurutzatzeko matrizea.
- Eragile tipologia balio katearekin gurutzatzeko matrizea.
- Eragile tipologia sektoreak eta azpisektoreak gurutzatzeko matrizea.

SEKTOREAK ETA AZPISEKTOREAK BALIO KATEAREKIN GURUTZATZEKO MATRIZEA

**X ardatza**  
**ESPASIO ETA PLATAFORMAK**  
 (fisikoak eta birtualak)


**Y ardatza**  
**ARAUTU, SUSTATU ETA BULTZATZEKO ERAGILEAK**








ERAGILE  
TIPOLOGIA  
SEKTOREAK ETA  
AZPISEKTOREAK  
GURUTZATZEKO  
MATRIZEA



# 6

## ERREFERENTZIAZKO BIBLIOGRAFIA



## ERREFERENTZIAZKO BIBLIOGRAFIA

Aspillaga Fariña, Alejandra eta beste egile batzuk, *Mapeo de las industrias creativas en Chile, caracterización y dimensionamiento*, Ed. Consejo Nacional de la Cultura y las Artes de Txileko Santiago, 2014.

[http://cid.uchile.cl/images/stories/docs/mapeo\\_industrias\\_creativas.pdf](http://cid.uchile.cl/images/stories/docs/mapeo_industrias_creativas.pdf)

BOP Consulting, *Mapping the Creative industries: a toolkit*, Ed. British Council, Londres, 2010.

<https://drive.google.com/file/d/0B8wtUgINuDMWUW12NW9pQ1IUb00/view>

Castro Higuera, Antonio, *Las industrias culturales y creativas y su índice de potencialidad*, Ed. Comunicación Social, Salamanca, 2017.

<http://www.comunicacionsocial.es/catalogo/colecciones/contextos/las-industrias-culturales-y-creativas-y-su-indice-de-potencialidad>

Chapain, Caroline eta beste egile batzuk, *Creative clusters and innovation*, Ed. NESTA, Londres, 2010.

[https://www.nesta.org.uk/sites/default/files/creative\\_clusters\\_and\\_innovation.pdf](https://www.nesta.org.uk/sites/default/files/creative_clusters_and_innovation.pdf)

Códigos CNAE de actividades económicas.

<http://www.codigoscnae.es/todosloscodigoscnae>

ColaBoraBora, *Ecosistema I+C+i*, Bilbo, 2016.

<https://www.colaborabora.org/2016/08/26/ecosistema-ici/>

De Voldere, Isabelle (koordinatzailea) eta beste egile batzuk, *Mapping the creative value chains. A study on the economy of culture in the digital age*. European Commission DG Education and Culture, Luxembourg, 2017.

<https://www.culturepartnership.eu/en/article/mapping-the-creative-value-chains>

Fundación ILAM, *Los diversos patrimonios*, San José, 2006.

<http://www.ilam.org/index.php/es/programas/ilam-patrimonio/los-diversos-patrimonios>

Eusko Jaurlaritza, *Prioridades estratégicas de especialización inteligente RIS3 para Euskadi*, Vitoria-Gasteiz, 2014.

[https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/4633/prioridades\\_estrategicas201404\\_ris3\\_gobierno\\_vasco.pdf?1400573225](https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/4633/prioridades_estrategicas201404_ris3_gobierno_vasco.pdf?1400573225)

Gómez de la Iglesia, Roberto, *Gestión creativa: ciudades y organizaciones creativas en Manual Atalaya*. Apoyo a la gestión cultural, Ed. Universidad de Cádiz, Cádiz, 2014.  
<http://atalayagestioncultural.es/capitulo/herramientas/gestion-creativa-ciudades-organizaciones-creativas>

Gómez de la Iglesia, Roberto eta Pérez Martín, Miguel Ángel, *El técnico en Actividades Socioculturales*, Ed. Xabide, Vitoria-Gasteiz, 1992.

Heerad, Sabeti eta 4. Sektoreko Network Concept Working taldea, *The emerging Fourth Sector*, Ed. The Aspen Institute, Washington, DC, 2009.

<https://assets.aspeninstitute.org/content/uploads/files/content/docs/pubs/4th%20sector%20paper%20-%20exec%20summary%20FINAL.pdf>

Howkins, John, *The Creative Economy. How People Make Money from Ideas*, Ed. Penguin Books, 2002.

<http://www.johnhowkins.com/wordpress/>

KEA, Media Group eta MKW, *The economy of the Culture in Europe*, Brussels, 2006.  
[http://ec.europa.eu/culture/library/studies/cultural-economy\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/culture/library/studies/cultural-economy_en.pdf)

Kind, Sonja eta Meier zu Köcker, Gerd, *Developing Successful Creative & Cultural Clusters*, Ed. Projektzukunft, Berlin, 2012.

[http://www.berlin.de/projektzukunft/fileadmin/user\\_upload/pdf/studien/Report\\_Impact\\_Assessment\\_2013-web.pdf](http://www.berlin.de/projektzukunft/fileadmin/user_upload/pdf/studien/Report_Impact_Assessment_2013-web.pdf)

Pratt, Andy C, *The Cultural Industries Production System: A Case Study of Employment Change in Britain, 1984-91* (Environmental and Planning A, 29. liburukia: 1953-1974), Ed. Pion, Londres, 1997.

<http://citeseerx.ist.psu.edu/viewdoc/download?doi=10.1.1.1018.3510&rep=rep1&type=pdf>

Ratzenböck, Veronika eta beste egile batzuk, *An analysis of the economic potential of the creative industries in Vienna*, Ed. City of Vienna, Viena, 2004.

<http://www.culturenet.cz/en/cultural-policy/analysis-of-the-economical-potential-of-the-creative-industries-in-vienna/kp:165/>

Hainbat egile, *Agenda 21 de la Cultura*, (tokiko kultura politikoak jorratzeko Hiri eta Tokiko Gobernu Batuen Foroan sortutako dokumentua), CGLU ed., Bartzelona, 2015.

[http://www.agenda21culture.net/images/a21c/nueva-A21C/C21A/C21\\_015\\_spa.pdf](http://www.agenda21culture.net/images/a21c/nueva-A21C/C21A/C21_015_spa.pdf)

Hainbat egile, *Análisis de la cadena de valor y propuestas de política cultural*, Kulturaren Euskal Behatokia\_Eusko Jaurlaritza arg., Vitoria-Gasteiz, 2015.

[http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/kultura\\_txostena\\_2015/es\\_def\\_adjuntos/Informe%20cultura%202015.pdf](http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/kultura_txostena_2015/es_def_adjuntos/Informe%20cultura%202015.pdf)

Hainbat egile, *Creative Economy Report. Special edition*. UNDP eta UNESCO ed., Paris, 2013.  
<http://www.unesco.org/culture/pdf/creative-economy-report-2013.pdf>

Hainbat egile, *Creative Industries in Estonia, Latvia and Lithuania*. Estoniako Kultura Ministerioa ed., Tallinn, 2010.

[http://www.looveesti.ee/wp-content/uploads/2016/01/CI\\_ELL\\_A4\\_kahepoolne\\_coated1.pdf](http://www.looveesti.ee/wp-content/uploads/2016/01/CI_ELL_A4_kahepoolne_coated1.pdf)

Hainbat egile, *Economía Creativa*, Ed. UNCTAD (Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen hitzaldia), Geneva, 2010.

[http://unctad.org/es/Docs/ditctab20103\\_sp.pdf](http://unctad.org/es/Docs/ditctab20103_sp.pdf)

Hainbat egile, *Estudio sobre el Ecosistema Cultural de Puerto Rico*, Ed. Comisión para el Desarrollo Cultural de Puerto Rico, San Juan, 2015.

<https://es.scribd.com/doc/267486776/CODECU-Estudio-sobre-el-ecosistema-cultural>

Hainbat egile, *Guía para la evaluación de las políticas culturales locales*, Ed. Federación Española de Municipios y Provincias, Madrid, 2009.

<http://documentos.femp.es/files/120-18-CampoFichero/Evaluacionpol%C3%ADticas.pdf>

Hainbat egile, *La especialización inteligente en las industrias culturales y creativas*, Innobasqueko Martes Jardunaldiak, Donostia, 2016.

<http://www.innobasque.eus/es/article/880/la-especializacion-inteligente-en-las-industrias-culturales-y-creativas>



# K RR S K N

KULTURA BERRIKUNTZAN  
BERRIKUNTZAREN KULTURA  
INNOVACIÓN EN CULTURA  
CULTURA DE LA INNOVACIÓN

KARRASKAN.ORG

KULTURSISTEMA kulturan berrikuntza eta berrikuntzako kultura sustatzen aritzen den KARRASKAN elkartearen garatutako proiektua da. KULTURSISTEMAKo 1.1 bertsioa 2016ko iraila eta 2017ko uztaila bitartean garatu dute, Eusko Jaurlaritzako eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura saileen babesarekin. Proiektua c2+i / Conexiones Improbables-eko Roberto Gomez de la Iglesiak eta ColaBoraBorako Ricardo Anton Troyasek gauzatu dute; Iranzu Guijarro Plaza izan dute lankide mapatze lanak koordinatzeko eginkizunean, eta Ojobueyko Nerea Marquez Txarramendieta matrize multzoaren erresoluzio grafikoan. Gainera, KARRASKANeko hainbat bazkidek eta kultura zein instituzioetako beste eragile batzuek parte hartu dute erreferentziak aberasten eta 2017ko maiatzean egindako edukien kontraste irekian.



KULTURSISTEMA Creative Commons by-sa lizentziaren menpe dago. Aitortza - Berdin Partekatzea (by-sa), lana era askean erabiltzea eta eraldatzea ahalbidetzen duen lizentzia da, baldintza bezala jarrita jatorrizko egileak aipatzea, eta horretatik eratorritako emaitza ere lizentzia beraren menpe jartzea.



[karraskan.org](http://karraskan.org)